

BALEIKE

Emakumeon* Etxea

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



ZUMAIAKO EMAKUMEON* ETXEA

HABIA BAT NORBERARENA



ENDANĒTAK
ez du saldu
bakarrrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Geltoki bidea, 1 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net



BALEIKE 314

2021-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 4 | Hitz tantak Jabi Gonzalez Toston
<i>Maite Ortiz de Mendibil eta
Frida Watkins Franco</i> | 26 | Plazan bazan |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Christos Foufounis Anaboli</i> | 29 | Zientzia eta ingurumena
Gonzalo Torre
<i>Mamua haragitu da II</i> |
| 8 | Hainbat aburu Karmele Gomez
<i>Azaroaren 25a dela eta</i> | 35 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Do, re, mi...</i> |
| 9 | Errematea Iosu Alberdi
<i>Bakerik ez</i> | 41 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Hoge urte klarinetisten sarea
ehuntzen</i> |
| 10 | Publirreportajea Artadi, bizitzeko
modu berri bat | 43 | Agenda |
| 12 | Erreportajea Amaia Urbieta Arruti
<i>Sarea egiteko aterpea</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Marx eta mertzeria</i> |
| 20 | Erretratua Maria Maya Manterola
<i>Julio Curiel, guraize artean</i> | 45 | Nire txanda Amaia Zubimendi
<i>Arkitektura</i> |
| 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Partekatu jostailuak... edo ez</i> | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Antonio Arias</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Imanol Azkue
Jabi Gonzalez Toston

Amaia Urbieta Arruti
Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
**Administrazio
arduraduna**
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Maite Ortiz de Mendibil eta Frida Watkins Franco

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Zumaiaiko Pilota Elkartearekin zesta puntan jokatzeko emakumezko bakarrak dira Maite Ortiz de Mendibil (Gasteiz, 2005) eta Frida Watkins Franco (Zumaia, 2008). Lehenak izan dira, eta, beraz, aurrekaria jarri dute. Horretaz jardun dute bi pilotariek Aitzuri frontoian BALEIKerekin.

Zerk animatu zintuzten zesta puntan hasiera?

Frida Watkins: Gure osaba Iñaki ikusita animatu nintzen ni. Kirola gustatu zitzaidan eta probatzea erabaki nuen. Hasierako entrenamenduetan kosta egin zitzaidan xisterarekin moldatzea; pixkanaka ohitu nintzen, ordea, eta gustua hartu nion.

Maite Ortiz: Ni nebak eraginda, hura jokatzeko ikusita zaletu nintzen.

Biak oso gazteak zarete, urte gutxi daramatzazue lehia, baina zuk, Maite, dagoeneko irabazi dituzu Munduko eta Europako txapelketak bikoteka 23 urtez azpikoetan. Zer nolako esperientziak izan dira?

M.O.: Oso bereziak. Gaztela eta Leonen jokatu ditugu bi txapelketak, Iscarreko eta Valleladoko frontoietan, eta esperientzia polita izan da. Normalean arerio berdintsuen aurka aritzen gara beti, Gipuzkoa mailan batik bat, eta jende berriaren aurka aritzea eskertzen da. Europako txapelketan, Frantziako selekzioarekin aritzen diren Ipar Euskal Herriko pilotarien aurka aritu ginen eta Mundukoan Mexikokoak ere baziren.

F.W.: Nik oraindik ez dut horrelako txapelketarik jokatzeko aukerarik izan nire adinari dagokion mailarengatik oraindik ezin dudalako. Datorren urtean izango dut Espainia mailan jokatzeko aukera eta oso gogotsu nago.

Zuek zarete taldeko emakume puntista bakarrak. Zu Maite, Gasteiztik etortzen zara, gainera. Nola amaitu du gasteiztar batek Zumaiaiko talde batean?

M.O.: Gasteizko klubean hasi nintzen, baina lurralde osoko talde bakarra denez, ez nuen noren aurka jokatu. Gipuzkoan daude talde gehien eta horregatik erabaki nuen hona etortzea, lehendabizi Hondarribiko taldean aritu nintzen, gero Donostian eta azkenik Zumaian. Hemen daramat denbora gehien.

Zu Frida, Zumaiaiko emakume puntista bakarra zara...

F.W.: Bai, eta izena eman zuen lehena. Maite etortzeak asko poztu ninduen bakarra izateari utzi niolako.

Zumaia goi mailako puntista ugari eman dituen herria da, guztiak gizonak, hori bai. Baduzue emakume erreferenterik?

M.O.: Emakume profesionalik ez dago zesta puntan; orduan, gizonak begiratu behar diegu nahitaez.

F.W.: Nire kasuan ere berdin, gainera familiakoak ditut erreferente horietako batzuk. Beraiek bezala, profesional izatera heldu nahiko nuke. Uste dut kirolari gazte ororen ametsa dela hori, gustuko duen kiroleko profesional izatera iristea.

Zesta punta da praktikatzeko duzun kirol bakarra?

F.W.: Ez. Ni futbolekin ere aritzen naiz. Biak ditut oso gustuko eta uztartu ditzakedan bitartean, egiten jarraituko dut, baina badakit iritsiko zaidala bat ala bestea aukeratu beharra.

M.O.: Nik ere jokatzeko nuen futbolekin lehen, baina orain zesta puntan baino ez. Astean bitan Zumaiaara entrenatzera etorri behar izateak futbolekin jarraitzea eragozten dit. Ordubeteko entrenamendua egiteko 2 ordu egiten ditut autoan. Amak edo izekok ekartzen naute. ■■■



Christos Foufounis

Anaboli

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Atenasen jaio nintzen, Grezian, 1965. urtean, eta 23 urte daramatzat Euskal Herrian bizitzen. Euskal Herriko neska batez maitemindu nintzen Kanadan bizi nintzenean. Behin Euskal Herrira etorrita, Ermuan bizi izan ginen zazpi urtez. Neska lagunaren familiak gozokien denda bat zuen, Poxpolin, eta han egiten genuen lan. Banandu ginenean, Debako hotel batean hasi nintzen lanean; hamar urte egin nituen han, Deban. Hotela itxi zutenean Zumaian aurkitu nuen lana, eta azken urteotan hemen bizi naiz.

Greziatik 1989an atera nintzen. Krisia zela, drogak zirela, jendea migratzen hasi zen; Greziatik ihes egin nahi nuen han egoera oso zaila zelako. Banekien garai hartan greziar asko bizi zirela Kanadan eta bizimodua aurkitzera joan nintzen. 1995era arte Montrealen egon nintzen, eta han denetik egin nuen: zerbitzari, oinetakoen saltzaile... Bisa ezin nuen berritu, eta orduko neska lagunarekin Greziara itzuli nintzen. Hotel batean egiten nuen lan: mantentze lanak egiten nituen neguan eta harreran egoten nintzen udan. Frantsesa dakidanez, itzultzaile lanak ere egiten nituen. Urte eta erdiren ondoren, lagun baten bitartez, Gabonera joan ginen, Afrikara. Bi urte egin genituen lan hango enpresa batean, 1998ra arte. Enpresa hura ez genuen oso gogoko, eta Ermura etorri ginen.

Gabonen Greziako kontsul izan nintzen. Lantoki nuen enpresak Greziako gobernuarekin

harremanak zituen, eta egoki ikusi zuten kontsulatua zabaltzea han. Harreman diplomatikoez ez nintzen arduratzen, ikasketa horiek ez nituelako, baina Gabonen bizi ziren greziarrei edo Kongoko gerra zibiletik ihes egiten zutenei laguntzen ibili nintzen: agiriak betetzea, aireportutik jaso eta hirira eramatea, ostatua aurkitzea...

Betidanik izan dut musikaren pasioa. Han, Grezian, musika talde batzuetan jo izan nuen, baina gustuen oraingo taldearekin nago, The Grace of Dionysus taldearekin. Ez dira garai onak musikararako. Geldialdi bat egon da, eta hartutako neurriak ere ez dira onenak kulturarako. Lehen, garai honetan, kontzertuak izaten genituen; orain ez ditugu lortzen: tabernek ez dute kontzerturik antolatzen, eta dirurik ere ez dago horretarako. Talde txikia gara, herrikoa, eta ez dugu kontzerturik aurkituko digun managerrik. Gurea bezalako taldeek kontzertuak behar izaten dituzte dirua lortu eta horrekin grabazioak ordaintzeko; ez dugu honekin aberastu nahi, guretzat pasioa da. Orain bertan bidea itxita dago, baina zabalduko dela uste dut.

Greziar mitologian esaten den bezala, nire Itaka hemen aurkitu dut. Itaka metafora bezala erabiltzen dugu greziarrok, parte sentitzen zaren leku hori definitzeko. Nire sustraiak ez ditut Grezian aurkitzen; oso gazte atera nintzen handik, eta denbora gehiago pasa dut Greziatik kanpo Grezian bertan baino; hara joan izan naizenean atzerritar sentitu naiz. Hemen ere atzerritarra naiz, baina nire Itaka, nire etorkizuna, hemen dagoela ikusten dut. ■■■





Azaroaren 25a dela eta

Azaroaren 25a dela eta, gure herriko kaleak aldarrikapenez beteko dira beste behin emakumeon* aurrak indarkeria salatzen: elkarretaratzeak, manifestazioak... Indarkeria hori giza eskubideen urraketa bat dela esaten dugu, behin eta berriro, baita gure gizartean diren botere harremanek eutsitako sistema patriarkalaren adierazpenik larriena ere. Hain zuzen, botere harremanek eragozten digute emakumeoi* bizitza duin eta autonomoa izatea, askatasunean.

Azken urteotan, urratsak egin dira emakumeon* aurrak indarkeria ikusarazi eta haren konplexutasuna identifikatzeko lanean. Esan beharra dago Mugimendu Feministaren mobilizazio eta erantzun kolektiboari esker izan dela,

munduko milaka emakume batu baitira indarkeria horren aurka ahotsa goratu eta haren eragina jasaten duten emakumeekiko elkartasuna erakusteko. Halere, oraindik bide luzea dugu berdintasuneko gizarte bat, indarkeria matxistatik gabea, lortu arte. Pandemiaren ondorioz bizitzea egokitu zaigun osasun krisiak agerian utzi du oraindik ere bere horretan dirautela desberdintasunek. Konfinamenduak herritarrak

**INDARKERIA
MATXISTA GIZA
ESKUBIDEEN
URRAKETA BAT DELA
ESATEN DUGU**

hilabete batzuek etxean isolatuta egotera behartu ditu, eta horrek emakume askoren zaurgarritasun egoera handitu du eta erasotzailerekin batera bizitzera behartu ditu. Horri dagokionez, nabarmendu nahi dugu indarkeria matxistaren errotik ateratzeko gizarte osoa inplikatzeko duen garrantzia, eta azpimarratu konpromiso horrek osasun larrialditik haratago doan errealitatea izaten jarraitu behar duela.

Bestalde, garrantzitsua da indarkeria jasaten duten emakumeak* erabakitze eta jarduteko gaitasuna duten subjektu gisa aurkeztea, aktiboak bizitzea egokitu zaizkien egoeren aurrean. Salatu eta nahikoa dela esateko ahalduz diren emakume gisa aurkezteko, eraldaketarako dituzten mekanismo eta

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Bakerik ez

Balitzko egilea eta biktima aldatuko dira, baina denoi ere antzeko irudiak datozkigu burura begiak itxi eta indarkerian pentsatzeko eskatzen badigute: kolpeak, hilketak, atxiloketak, mehatxuak eta abar; finean, indarkeria zuzentzat jo dezakeguna. Irudi ikusgarri horietara mugatzen al da, baina, indarkeria? Johan Galtung soziologoak bakea eta gatazka ulertzeko duen moduaren arabera, inolaz ere ez, hura icebergaren punta besterik ez da izango. Halako ekintzen oinarrian egungo sistema sozial, politiko eta ekonomikoek sorrarazten dituzten talkak daude, baita horiek justifikatzen eta legitimatzen dituzten aspektu kultural dominatzaileak ere; deitu haiei erlijio, ideologia, sinbolo... Hartara, kolpeak bezain biolentotzat jotzen ditu esplotazioa indarkeria estruktural bat edota etnozentrismoa indarkeria kulturala. Beraz, gatazkek ez dute etenik izango haiek martxan jarraitu bitartean. Bada, baina, kontrakoa defendatzen duenik, indarkeria zuzen eza bake gisa salduz betiere, *statu quo*-aren defentsarako indarrena kontuan hartu gabe. Bi motatako pertsonak dira horiek, soziologoaren hitzetan: "bakea egiteko eta eraikitzeke lana hastear dagoela ulertzen ez duten inozoak" eta "lan hori hastea nahi ez duten ez hain inozoak".

gaitasunak abiatuta indarkeriarik gabeko bizitza baterantz jotzeko. Hori guztia milaka emakumeren urtetako borroka eta aldarrikapenak emandako bultzadarekin indarkeria matxista errotik ateratzeko eta hura pairatzen duten emakumeei denon babesa agertzeko. Zumaian, gainera, azpimarratzekoa da Berdintasun Foroa bera, non herriko emakumeek* gidatu dituzten berdintasun politikak, eta indarkeria matxistaren aurkako lan izugarria egin den. Horri dagokionez, beharrezkoa da berdintasunerantz aurrera egiten eta maskulinitate eta feminitate eredu tradizionalak deseraikitzen jarraitzea, eta maitasun erromantikoaren mitoa baztertzea, indarkeria matxistari aurre egiteko. Administrazio publikoek,

bereziki udalek, gauzatutako politiken eta ekintzen garrantzia sentsibilizazioaren arloan, indarkeriaren prebentzioan eta bizirik atera diren emakumeei* arreta osoa eman behar diete, betiere ahalduntzea esku-hartzearen jomuga hartuta.

Azken urteotan, baliabide eta zerbitzu asko garatu dira indarkeria matxistari eta horren ondorioei aurre egiteko. Nabarmenduko genuke Emakumeon* Etxearen papera honetan guztian, indarkeriaren prebentziorako, detekziorako, deribaziorako eta osatzeko gaitasun handiko ekipamendua baita.

Gogorarazi behar dugu zein garrantzitsua den herritar guztion inplikazioa, indarkeria matxista deuseztatzeko. Denon ardura delako hori amaitzea. ■



Artadi, bizitzeko modu berri bat

ARTADI BI
RESIDENCIAL • ETXADIA
ZUMAIA



Artadiko San Miguelen bizitzeko azken hamar etxebizitza eraikigarriak martxan ditu Inmobiliaria Oriok Artadi 2 sustapenarekin. Urtea amaitu aurretik hasiko ditugu eraikuntza lanak, eta etxe horiekin, amaituta geldituko da auzoaren hiritartzea. Urte askotako lana izan da, baina merezi izan du: auzoa txukun eta egoki hiritartuta geldituko da.

Artadi 2 Etxadiak bizitzeko modu berri bat eskaintzen du. Izan ere, gure etxebizitzek terraza zabalak dituzte, eta oso gutxitan ikusten den zerbait eskaintzen dugu etxearekin, garajearekin eta trastelekuarekin batera: baratzea. Bizitza-kontzeptu berria da, herrigunetik

kilometro pare batera bakarrik dagoena, eta aldi berean, naturaren onenaz gozatzeko aukera ematen duena. Bizitza-kontzeptu osasungarriago bat, alegia.

Horrez gain, azpimarratzekoa da A kalifikazio energetikoa izango dutela etxebizitzek. Hori lortzeko, berokuntza zoru irradiatzaile bidez egingo da, tenperatura baxuan, eta prestazio termiko altuko leihoak jarriko dira etxebizitzetan. Gainera, etxeen kokapenagatik, hainbat abantaila izango dituzte: kutsadura akustiko txikia, eta aireztapen natural bikaina, esaterako. Hiru logelako etxebizitzak dira, eta sukalde erabat hornituekin emango

dira, eta tamaina handiko leihoak izango dituzte.

Zumaian gustura lanean

Sustapen honekin, denera 25 etxebizitza eginak izango ditu Inmobiliaria Oriok Artadin, bai bezeroek eskaini diguten konfiantzagatik, bai Zumaia Udalaren laguntzagatik, krisi ekonomikoek eta pandemiak zailtasunak eragin dituztelako gizarteko sektore guztietan, baita higiezinaren sektorean ere.

**URTEA AMAITU
AURRETIK HASIKO
GARA ERAIKITZEN
AZKEN HAMAR
ETXEBIZITZAK**




Elkarlanean, ordea, sustapen hau martxan jarri ahal izan dugu, auzora onura ekarriz.

Gure eskaintzak harrera bikaina izan du, eta etxebizitza guztiak salduta ditugu. Espero dugu, ordea, Zumaian lanean jarraitzea promozio berriei, gure bezeroen beharrei erantzuteko. Ideia guztietara zabalik gaude, eta ez izan zalantzarik gurekin harremanetan jartzeko.

Hainbat partzela

Etxebizitzaz gain, Inmobiliaria Oriok hainbat partzela izan

ditu salgai Artadin, horietako hiru tamaina handikoak, nork bere ametsetako etxea eraiki ahal izateko. Bi salduta daude dagoeneko, eta orain partzela bakarra gelditzen da herritarren eskura. 1.753 metro koadro ditu lursailak, eta 350 metro koadroko etxea eraiki daiteke bertan, bi edo hiru solairukoa. Izkinako partzela denez, ikuspegi zoragarria dauka, herrigunea eta itsasoa ikusten direlako bertatik. Interesa izanez gero, etorri gugana konpromisorik gabe. ■■■■



**Inmobiliaria
ORIO**
CONSTRUCCIÓN
PROMOCIÓN
GESTIÓN



Nafarroa Kalea, 13
(provisionalki Bizkaia Kalea, 11)
20800 Zarautz
943 - 89 44 33
orio@inmobiliaria-orio.com
www.inmobiliaria-orio.com
www.residencialartadi.com



Sarea egiteko aterpea

Testua: **Amaia Urbietta Arruti**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

I railaren amaieran atek zabaldu zituenetik, hamaika emakume zumaierrentzat bilgune bihurtzen ari da Emakumeen* Etxea. Hainbat zumaier lanean aritu dira horretarako, eta orain inauguratutako espazioa bizirik mantentzea dagokie. Aratz Zearretak dihardu dinamizatzailer lanetan, eta bera arduratzen da arreta zuzena eskaintzeaz bertaratzen direnei, egitaraua antolatzeaz eta diru kontuez.

Bere hitzetan, etxeak eskaintzen dizkie emakumeei "ahalduntzeko eta sarea indartzeko tresnak". Orain arteko martxa ikusita



"ezinbestekoa" zela ikusi du Zearretak. Oraingoz, hainbat hitzaldi eta ikastaro antolatu dituzte, eta zenbait talderen elkartzeko leku ere bada espazio berria. Dinamizatzailerak jakitera eman duenez, itxaron zerrendak daude ikastaro askotan, jendea joan-etorrian ibili ohi da, eta jendea etxea erabiltzeko askotariko proposamenak egiten ari da. "Batzuek proposatu digute, esaterako, emakume sortzaileen topaketak egitea, gero horrek fruituak eman eta azokaren baterako ekimena sor daitekeelakoan". Elkarrekin berak antolatzen dituen ekintzez gain, beraz, lortu du nolabaiteko erreferentzialtasuna guneak.

280 bazkide ditu gaur egun Zumaiako Emakumeen* Etxeak. Ez da kopuru makala, baina Zearretak nahiko luke askotariko emakumeek etxetat hartzea. "Mugimenduaren gertukoak, saretik hurbil zeudenak, erraz erakarri ditugu, baina seguru dagoela emakume pila bat etxean, zaintza lanetan aritu direnak urte luzez". Horiengana heltzea nahiko luke Zearretak, Zumaiako emakume guztientzat "babesleku" izan dadin.





Maialen Odriozola Martija

Emakumeon* Etxeak ateak zabaldu aurretik, Talde Eragilean ibili da Odriozola hiru urtez. Talde txikian elkartzen ziren proiektua nolakoa izan zitekeen pentsatzeko. Proiektuaren prozesu hori herriko emakumeei hedatzea eta komunikatzea izan da Odriozolaren lana urte hauetan. "Guretzat inportantea zen jendearen artean zabaltzea etxearen beharra, eta jakin nahi genuen ea zer iritzi zeukan jendeak horren inguruan". Bazkidetza kanpaina ipini zuten martxan, eta apurka-apurka, ekintzak antolatzen joan ahala, hasi ziren ikusten jendeak bazeukala interesa proiektuan.

Garbi dago lan horrek guztiak bere fruituak eman dituela, baina oraindik ere jarraitzen du Talde Eragilean Odriozolak, Emakumeon* Etxearen antolaketa eta kudeaketa lanetan, batez ere komunikazioa jorratzen. Esaterako, etxea zabaldu dutela gizarteratzeko bideo bat egin dute berriki, eta sare sozialak eta halakoak kudeatzen ditu beste kolaboratzaile batzuekin batera.

Odriozolak dio lehen ere ekintza asko egin izan direla Zumaian

feminismoa ardatz hartuta. "Orain, ordea, erreferentziazko leku bat daukagu eta horrek laguntzen du programa osoagoa egiten, ikuspuntu ezberdinetatik". Horrez gain, emakumeen "erreferentziazko leku" izatea nahi du aterpe berria, baita "hala behar denean, salaketak egiteko" ere. "Helburua da emakume zumaiarren bizitzak hobetzeko aletxoia ipintzea".

Laura Iparragirre Uria

Herriko mugimendu
feministako kide da
Laura Iparragirre,
eta arrazoi
horrengatik
hurbildu zen
Emakumeon*

Etxera. Berak pauso
hori ematea erabaki
zuenerako bazegoen
etxeak izan behar
zuenaren proiektua
mahai gainean, eta
ekarpenak egiteko
hurreratu zen
Iparragirre.

"Egitarauak
osatzeke, eta
bestelako kontuetan
nire aletxoak
jartzeko", dio.
Iparragirrek etxeak
"martxa ona"
hartuko duen
irudipena dauka.

Horrez gain,
Emakumeon* Etxea
martxan jarri
zenean bertan
zegoen eskaintza
ikusi, eta noka
ikastaroan izena
eman zuen
Iparragirrek.
Hemezortzi lagun
inguru biltzen dira.
"Toki bizi" moduan
definitu du
Emakumeon* Etxea
Iparragirrek.

"Elkargune izaten
ari da perfil eta adin
ezberdinetako
jendearentzat. Alde
horretatik, oso
aberasgarria izaten
ari dela iruditzen
zait, eta horrela jarraitu dezala". Izan ere, elkargune hori gabe
"kontu puntualerako" soilik elkartuko litzatekeen jendea batzen
du espazioak. "Honek aukera ematen dizu jende hori ezagutzeko
beste giro batean".





"ZORU PELBIKOAREN INGURUKO EZAGUTZA FALTA HANDIA DAGO; TABUA HAUSTEN LAGUNDU DEZAKE"

Eneritz Gallastegi Lazkano.

Zoru pelbikoan aditua den fisioterapeuta da Eneritz Gallastegi. Ikastaroak eskaintzen ditu astearte goizetan, eta azaldu du "oso garrantzitsua" dela emakumeek jakitea zer den zoru pelbikoa eta nola indartu daitekeen. "Ezagutza falta handia dago eta tabua da oraindik horri buruz hitz egitea", dio Gallastegik.

Urriaren 5ean gaira hurbilpena egiteko tailer hitzaldi moduko saio bat eskaini zuen, eta orain abdominalak nola egin irakasten du, "zoru pelbiko hori indartzeko eta minik ez egiteko". Gallastegik uste du Emakumeon* Etxearen moduko espazio bat edukita, "errazago" hurbildu daitezkeela emakumeak bertara, "segurtasuna" ematen duelako. "Espazioa oso ondo dago, eroso da eta tabu hori hausten lagundu dezake. Gainera, ez dugu material askorik behar ikastaro honetarako; esterilla batekin nahikoa da".



Ainhoa Leturiondo Muñoz

Bikoteagandik banandu zenean bere esperientzia berdinetik edo antzekotik igaro diren emakumeekin hitz egiteko beharra sortu zitzaion Ainhoa Leturiondo Muñoz, eta horretarako espazio bat behar zuen. Kuadrilla berekoak dira Maialen Odriozola eta bera, eta hark eta aurreko koordinatzaileak lagunduta hasi zen kartelak pegatzen egitasmoa martxan jarri ahal izateko. *Banan coffee* izena jarri zioten eta, hala, ama diren eta bananduta dauden emakumei zuzendutako deia egin zuten, esperientziak partekatzea animatzeko, terapia gisa.

Pandemia garaian sortu zitzaion burutazioa Leturiondori, eta zain zegoen ea noiz arintzen zituzten neurriak, kontua martxan jarri ahal izateko. Hogarrean hasi ziren biltzen, ahal zuten moduan, distantziak mantenduta eta maskarak soinean. Zazpi lagun elkartera iritsi ziren, baina denak biltzea "oso zaila" izaten zela dio, bakoitzak bere kontuak izaten zituelako. "Hala ere, elkartzen ginenean, oso ondo egoten ginen. Artikulu bat hartzen genuen eta gai horren inguruan genituen iritziak eta esperientziak partekatzen genituen".

Udako etenaren ostean, orain, aterpe sendoagoa dute martxari heltzeko. "Orain etxea daukagu, orain, benetako *banan coffee* izango da, toki goxoagoan". Izan ere, bada sukalde txiki bat Emakumeon Etxean, eta haren inguruan bilatuko dute orain elkarren berri izateko espazioa.

**"ORAIN ETXEA
DAUKAGU, ORAIN,
BENETAKO 'BANAN
COFFEE' IZANGO DA,
TOKI GOXOAGOAN"**



Aitana Perez Juez.

Mugimendu feministako kide moduan erabiltzen du Emakumeon* Etxea Aitana Perezek, baita norbanako moduan ere. Momentuz, talde feministak bertan bilerak egiteko baliatu du. Azaldu du duela gutxira arte beste toki batean egiten zituztela, baina orain badutela espazio propio bat, "eta hori eskertzekoa da". Horrez gain, batukada tailerrean ere izena eman du Perezek; beraz, bi astean behin gorputza astintze-ere joaten da bertara. Perezentzat Emakumeon* Etxea "leku segurua eta emakume feministen arteko topagunea da". Azaldu du hori "inportantea" dela, edozein motatako emakumeak direlako ongietorriak Emakumeon* Etxean. ■■■

BETI ZUREKIN

GIPUZKOA

943 903 450

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



IGOGAILUKO
ZARATAK



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKITUAK
BERRESKURATZEA



HARRAPATZE
EGDERAK



www.bertako.eus



7
MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09

a3 diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52

Aita Mari
JATETXEA ZUMAIA

679 10 31 67

Juan de Zigarán, 1
Zumaia

@aitamarijatekx@gmail.com

f t i

AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama Taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 beheak • Zumaia

943-54 35 70 • 688 73 38 56

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzgia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31

ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47

OKINDEGIA
Arkupe

Naizka 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-xopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21

Kantauri 2, beheak
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel/faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basodi
albaitaritzak

Albaitaria
Maki Garmendia

Basodi, 7, beheak • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basodivet.com
www.basodivet.com

Goizez: 11-13 / Arratsaldez: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan 8:30a
Larriak: 605 72 87 07 Etzaz ebako zerbitzuak

Jarri zure iragarkia
BALEIKEn
943-86 15 45

BALEIKE.eus

Julio Curiel, guraize artean

Julio Curiel, ile apaintzailea

Berrogei urtez izan du zabalik Julio Curielek Erribera kalean duen gizonezkoen ile apaindegia. Bertara iristeko egindako bideaz, ile apaindegiko bizipenez eta lokalaren etorkizunaz aritu da BALEIKEren.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Lau hamarkada hauetan izan duen ofizioaren inguruan aritzeko, ezinbestekoa da Curielentzat bere gurasoen inguruan ere jardutea, eta bere sustraiak aipatuta hasi nahi izan du elkarrizketa. "Lehenik eta behin, nire gurasoei eskertu nahi diet neu mundura ekarri izana. Eta, gero, baita hemen geratzea ere, eta ez bizitzeko beste leku bat aukeratzea", azaldu du.

"Beti esaten dut hemen fabrikatu nindutela". 1953ko urriaren 15ean –Curielen arreba jaio zen egun berean– iritsi zen aita Valladolidetik (Gaztela eta Leon, Espainia). "Garai hartan jende asko etortzen zen hona. Migrante asko zegoen, lan asko zegoelako. Fabrikak ez zituen familia guztientzat etxebizitzak, eta bizpahiru familia bizi ziren etxe bakar batean. Gure ama haurdun geratu zen, eta herrira joan behar izan zuen", dio ile apaintzaileak. Curielen aitak Zumarragako tren geltokian igaro behar izan zuen gaua. Euri jasen ondorioz Urola ibaiak trenbideko zubi guztiak eraitsi zituen, eta tren zerbitzuak bertan behera geratu zirela eta, Arroan geratzea erabaki zuen Curielen aitak.

Valladoliden landa eremuan egiten zuen lan aitak, baina lanaldia bukatu eta etxean jarraitzen zuen lanean, bizargin. Arroa Behera bizargintzarako lan tresnekin iritsi zen, eta prozedura bera jarraitu zuen: Cementos Rezola fabrikan egunez lan; bizargin etxean iluntzean. "Etxean txikitatik ikusi dut aita jendeari ilea mozten. Bere labanak zorroztu eta tresnak garbitzen zituen gauero, hurrengo egunerako garbi edukitzeko. Baserrietako jendea eta fa-


briketako langileak etortzen ziren maiz. Arroako biztanleen gehiengoa etorkinak ginen, % 90 edo. Gure lehengusu batzuk Aizarnazabalera eta Arroa Goira joan ziren, eta haiek euskara ikasi zuten", azaldu du Curielek.

Curielek Erribera kaleko ile apaindegian gordeta du oraindik aitak etxean lan egiteko beharrezkoa zuen agiria. Diru zorroan sartzeko moduko neurrikoa, 1960an Sindicato de Actividades de Guipuzcoak izenpetua.

Alondegian zegoen Eskola Profesionalean mekanika ikasketak egin zituen Curielek, baina haurra zenetik garbi zeukan bizartegia zabaldu nahi zuela. Fresatzaile eta tornulari aritu zen gero tailerrean, 16 urterekin. 70eko hamarkadan soldaduskara joan zen Curiel, eta aitaren lan tresnak eraman zituen berarekin. "Zumaian badaude nirekin soldaduskara joan ziren batzuk. Oraindik esaten didate: 'Zuk gurekin ikasi zenuen ilea mozten, kabroi hori!'"

Hamarkada horretan izan zen krisi ekonomikoak astindu zituen mekanika alorreko enpresa asko, eta soldaduskatik bueltan, Curielek lantoki zuen Zestoako Guztiok bat enpresa ez zen salbuespena izan. Bera izan zen handik alde egiten lehena: "Nik lan egiten nuen enpresan esan ziguten lanean jarraitu nahi ez zuenak uzteko aukera zeukala, eta kalte ordaina jasoko zuela lana bere kabuz utziz gero. 800.000 pezeta eman zizkidaten hiru alditan. Orduan esan nien lankideei Zumaian ile apaindegia zabaldu nahi nuela".

Langabezian pasatu zituen lehenengo hilabeteak. Gero, Coro Prieto emaztearen estetika zentroan bertan zegoen gela batean jarri



irrimarra



zuen ile apaindegia, Maite Astarloa zumaiaarrarekin batera: “Zazpi urtez egon nintzen Coro Prietoren lokalean Astarloarekin, eta hau zabaldu nuenean nirekin jarraitu zuen beste urte batzuek. Guztira, ia hogeitaz urtez egin genuen lan elkarrekin. Gero Errioxara joan zen bizitzera”, dio Curielek. Duela berrogei urte orduko alkate Castor Agirrezabalagak sinatutako ile apaindegia zabaltzeko baimena gordeta dauka Curielek.

Lehenengo urteak zalapartatsuak izan ziren ile apaintzailearentzat, Erribera kaleko ile apaindegian lan egin, eta ikastaroetara joaten baitzen gero. “Lanetik atera, eta astean bizpahiru aldiz joaten ginen Bilbora, modelo banarekin. Urtebetez edo egin genuen ikastaro hori. Asko ikasi genuen ile apainketaren inguruan. Gizonezko ile apainketarekin lan asko izan dut Zumaian, baina egiten genituen formakuntzetan emakumezkoek ere ilea moztzen genien”, dio. Dena den, “autodidaktatzat” du bere burua, bizargintza bere kabuz eta aitaren bitartez ikasi baitzuen, batik bat, Curielek.

Zumaiara iritsi berritan, Erribera kalean zegoen Luis Mujika ile apaintzailarengana joan zen Curiel: “Esan nion ile apaindegia zabaldu behar nuela, eta aurkeztu egin nintzaion. Uste dut ile apaintzaileok norberak bere negozioan egin behar duela borroka, baina kalean jendeak ikusi behar duela harreman ona dugula. Batek baino gehiagok esan dit erretiroa hartzen dudanean ea erakutsiko diodan bizarra nola moztu, eta ez diet ezezkorik eman”.

Denetarikoz bezeroak

“Bost belaunaldi ezberdini moztu diet ilea”, dio Curielek. Gogoan du Coro Prietoren lokalean zuen

ile apaindegian izan zuen lehen bezeroa: “Inazio Azpeitia izan zen, Agustinen aita. Janari denda bat zuen ondoren *Luxia*-k [Luis Mari Olasagastik] harategia jarri zuen lokalean”, gogoratu du.

Ile apaindegian gertatutako makina bat istorio akorduan ditu. Horietatik, bereziki bat aipatu nahi izan du: “Enpresari batek eskatu zidan ilea moztea tokatzen zitzaionean deitzeko, eta hala egiten nuen aldiaren behin. Egun batean deitu, eta 12:00ak aldera etorri zen ile apaindegira. Ilea garbitzen hasi nintzen, eta telefonoak jo zion. Bulegotik deitu zioten, ingeles edo italiar batzuk etorri zirela esanez; toallarekin burua lehortu eta alde egin zuen. Joxe Mari Korta zen, eta handik gutxira hil zuen ETak. Arroarra zen, nik asko ezagutzen nuen”.

Hasierako urteetan ilea oso ondo orrazteko eta erdiko marra ondo markatzeko eskatzen zieten Curieli; orain, berriz, degradatuak daude modan: “Jendea ez orrazten hasi da, eta ez du marra eraman nahi. Hala ere, denetik egiten dut”. Izan ere, Curie-

Julio Curiel

- Adina: 66 urte.
- Ikasketak: Lehen Maila eta Industria Ofizialtza.
- Lanbidea: ile apaintzailea.
- Ile apaintzailea ez banintz... Garbi daukat, ile apaintzailea.
- Lanetik ateratzean gogoko dut... Ardo pare bat edatea, familiarekin egotea eta atseden hartzea.

len ustez, garrantzitsua da adineko pertsona bat ile apaindegira joaten bazaio, eta esaterako kopeta ileak edo lepoaldea konpontzea nahi badu, ondo egiten jakitea.

Haurrak ere izaten dira ile apaindegian. Curielek uste du halakotan egin dezakeen onena gurasoei alde egin dezaten eskatzea dela.

Erretiroa hartzeaz

Erretiro aktiboan dago orain Curiel, eta lokala eskualdatzea gustatuko litzaioke: “Higiezin batean daukat lokala, eta iragarkiak ere jarri ditut dagoeneko. Lehia handia dago, baina ondo lan eginez gero, soldata irabazi dezakezu”. Dena den, Curielek uste du ekintzaile gutxi dagoela gaur egun. “Bere garaian egin nuen nik, eta oso garai txarra zen. Jendeak esaten dit zortea izan nuela, baina ez da horrela. Nik ideia bat neukan, lokal batean hasi nintzen lanean, eta bankuarekin hitzarmena sinatu behar izan nuen. Astelehenetik larunbatera egiten nuen lan”, gogoratu du.

Lokala eskualdatzeko aukerarik ez badu, alokairuan jartzea aukera bat dela dio. Martxoa iritsi aurretik erretiratzea gustatuko litzaioke.

Esker hitzak izan ditu urteotan guztiotan bere ile apaindegira joan direnentzat eta ez direnentzat:



“Jendaurrean lan egiten duenak hanka sartu dezake, eta nik uste dut batzuetan sartu dudala nik ere, esan behar ez nuen zerbait esanda edo gehiegi hitz egin da. Barkamena eskatu nahi nioke noizbait minduta edo irainduta sentitu ahal izan den edonori. Eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet etorri direnei, baita etorri ez direnei ere”. ■■■



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali azaroaren 18a baino lehen.

Saria: TIPITAKIN bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Irailiko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 23. orrialdean zegoen ezkatututa, eta **Amaia Urteaga** bazkidea izan da irabazlea.



EDUKIEN SORKUNTZA

• EDUKIEN SORKUNTZA EUSKARAZ ETA
GAZTELANIAZ, HAINBAT EUSKARRITARAKO.

- COPYWRITING DIGITALA.
- EDUKIEN MARKETINA.
- STORYTELLING-AK.



GUKA       ZERBITZUAK

Partekatu jostailuak... edo ez



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Gurasook asko kezkatzen gara gure seme-alabek jostailuak partekatzen ez dituztenean. Lotsatu egiten gara parkean umeak bere panpinari indar guztiekin heltzen dionean beste haur batek ez hartzeko, gure hezteko modua agerian utziko duen beldurrez.

Haurrak ez ditugu behartu behar beraien jostailuak partekatzerara. Haur batek berak erabaki behar du hori noiz egin eta norekin. Gauzak partekatzea oso pertsonala da, eta haur bat partekatzerara behartzean, bere nahiaren aurka joatera bultzatzen dugu.

Oso ohikoa da haur batek gutxienez 3 urte bete arte partekatu nahi ez izatea. Lehen urteetan haurrak ez dira elkarrekin jolasten, paraleloan baizik, bata bestearen ondoan, baina hartu-eman gehiegirik gabe. Gero, pixkanaka rol jolasean hasten direnean, partekatzearen zentzua ulertzen hasiko dira. Beraz, ez diegu

erakutsi behar, beraiek bakarrik garatuko dute pixkanaka, batez ere, helduen ereduari jarraituz.

Behartzen ditugunean, segurtasun falta sortzen diegu, eta horrek bere garapen naturala moteldu dezake, eta partekatzeko beldurra handitu.

Akaso helduok geure gauza guztiak partekatzen ditugu? Mugikorra, eguzkitako betaurrekoak, autoa... parkean topatzen dugun edozein ezezaguni uzten diogu? Nahiz eta ez erabiltzen egon, ez dugu egiten, noski.

Zer egin dezakegu behartu ordez? Berak ikus zaitzala zure gauzak partekatzen besteekin. Eredu izan. Berarekin partekatu zure gauzak. Zenbat aldiz ematen diegu ezezkoa gure gauzak eskatzen dizkigutenean?




**BERAK IKUS
ZAITZALA ZURE
GAUZAK
PARTEKATZEN
GAINERAKOEKIN**

Egia da batzuetan ezin ditugula partekatu, baina beste askotan aukera badugu.

Gogoratu balioak ez direla erakusten, balioak transmititu egiten direla. Aurrekoarekin lotuta, gogora dezagun haur bat bere gauzak partekatzerara behartuta ere, ez duela lehenago ikasiko. Besteak eta gu ikusten ikasiko du. Eredu izan behar dugu.

Norbaitek zerbait eskatutakoan, galdeiozu ea nahi duen utzi. Haurra prest dagoenean, bere gauzak partekatuko ditu. Behartzen badugu, gehiago blokeatu eta itxiko da; aukera ematen diogunean, aldiz, erabakitzeko libre sentituko da eta horrek segurtasuna eman-go dio.

Azaldu umeari berriro behar duenean zuk lagunduko diozula berreskuratzen. Argituiozu berreskuratuko duela, ez dela behin betiko. Hori askotan beraiek ez dakite. Haur txikiek askotan pentsatzen dute beraien jostailua eraman duen haurrak jostailua beretzat hartuko duela. Egozentrikoak dira. Eskuetan dutena beraiena da. ■



Hamarrekoa

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Ui! TXORIA!

Seiko sudoku hau TXORIA hitza osatzen duten hizkiez egina da. Hutsuneak bete behar dituzu, eta horretarako, kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu

behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

DOMINOAN


Ba al dakizu zer jaten duen aldameneko txoriak? Bada, euliak, eltxoak, ehunzangoak, zizareak, kakalardoak eta sitsak, eta sei elementu horiekin domino segida hau osatu beharko duzu.

	X		T	O	
	T				A
		T		A	R
X					
		I			X
	R		I	O	



Itzala

Horra non pausatu den txoritxo! Aurki ezazu irudi honen itzal zuzena.



Mezua

Erabili marrazkitxoan alfabetoa eta txoritxoak zer dioen jakingo duzu. Esaera ezagun bat da.



ALFABETOA



pareak bai!

Lotu irudi bakoitzari bere izena. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



MITXOLETA

TXOLARREA



LIKANTROPOA

ERPINA



SAIA


TXERMENA



KUKUSOA



AHO-GINGILA



Handitik txikira

Ordna itzazu flamenko berezi hauek handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 6.

Gainera margotu egin behar dituzu, honela:

- 1.- Isats-hegalak gorritz eta gorputza arrosaz.
- 2.- Isats-hegalak laranja eta gorputza gorritz.
- 3.- Isats-hegalak laranja eta gorputza urdinez.
- 4.- Isats-hegalak horiz eta gorputza berdez.
- 5.- Isats-hegalak berdez eta gorputza grisez.
- 6.- Isats-hegalak arrosaz eta gorputza zuriz.




Orbela



Bost txatal hauetatik bi irudi nagusitik hartuta daude eta beste hirurak engainariak dira. Bereiz itzazu.

Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretgia · asador
José Blázquez

Patzila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

*Erloju
eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olazola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60



Mamua haragitu da II

Aurrekoan, klima aldaketak hurbileko itsasoetako parametro ozeanografiko nagusietan eragin dituen aldaketak deskribatu genituen. Hurrengo lerroetan, berriz, itsas ekosisteman eta itsas espezieetan egiaztatutako mudantzetan jarriko dugu arreta. Izan ere, testu hartan deskribatutako ozeanografian emandako aldaketek organismoak garatzeko ingurumen baldintzak aldatu dituzte, eta bizidun horiek moldatzera behartuak izan dira.

Heriotza masiboak eta banaketan izandako aldaketak

Ipar-mendebaldeko Mediterraneon, adibidez, klima aldaketak itsas organismoen hilkortasunean duen eraginaren ebidentzia zientifiko zabala dago; aitzitik, gure kostaldean ez da azaldu uraren berotze globalari lotutako heriotza masiborik. Bai, ordea, hurbileko lekuetan –Galizian, kasu– non muturreko gertaerei lotutako heriotzen inguruko lanak badauden. Han, molusku bibalbioen heriotza masiboak gertatu dira, uholde eurien ondoren gazitasuna bat-batean jaitsi izan denean.

Testua: **Gonzalo Torre.**



Laminaria hyperborea alga arrea. JANNE GITMARK. CC-BY-SA-3.0

Espezieen banaketan izandako aldaketei dagokienez, asko dira lekualdatu diren espezieak, batez ere, alga handiak. Migrazio hori hain da nabarmena, non hainbat lekutan garatzen ziren algek sortutako basoak guztiz desagertu diren eta haien ordeztasun itururako eta biodibertsitate eskaseko itsas hondoko agertu diren.

2018ko uztaileko *Baleiken* kontatu bezala, *Gelidium corneum* (garai batean gure hondartzetan ustiatutakoa) eta lamina (ikus 01 irudia) itururako ur epel hotzetako oldiak, besteak beste, izan dira kaltetuenak. Horrez gain, gure kostaldean karezko euskarriak dituzten alga gorriak ugaritu egin dira eta ur beroagoetan ohikoak

ziren algak agertu dira. Frogatu denez, alga espezie haietako batzuk desagertzeak zerikusia du ugalketa tasak jaistearekin, uraren tenperatura handiagoa dela medio.

Bestalde, planktonaren edo arrainen banaketan ere aldaketa nabarmenak hauteman dira eta dozena bat ur beroko espezie baino gehiago aipatu dira euren banaketako iparraldeko mugatik iparralderantz mugitu direnak. Hala, berdelak arrautzak jartzeko

eremuak iparraldera jo du argi eta garbi, eta desplazamendu hori zenbatu dute adituek: uraren tenperatura igo den gradu bakoitzeko, eremu horrek 30 bat km egin du iparralderantz.



Muxarrak *Asparagopsis armata* alga gorriaren zelai baten gainean.

MATTHIEU SONTAG, CC-BY-SA

Kanpoko espezieak eta funtsezko espezieen aldaketak

Klima aldaketak komunitate askotan eragin dituen aldaketek espezie inbaditzaile batzuen alde egin dezakete. Izan ere, funtsezko espezie batzuk desagertzen direnean, kanpotik ekarritako espezieek eremu hori okupatzeko bidea libre dute. Hori gertatu da, adibidez, *Asparagopsis armata* (ikus 02 irudia) izeneko alga exotikoaren hazkunde nabarmenarekin, eta gertaera Atlantikoko kostaldeko zenbait lekutan alga baso batzuk desagertzearekin lotu dute ikertzaileek.

Geoparkeko hondartzetara heldu ohi diren algen artean gero eta ohikoagoa da ikustea Ozeaniako eta haztegieta ostrekin batera Europara heldu zen alga gorri hori.

Lehenago deskribatu dugu gure kostaldeko alga handien komunitateetan klima aldaketak izan duen eragina, eta badakigu funtsezko espezieen ugaritasunean aldaketa handiak eragin dituela.

Hainbat kasutan, gainera, erabat desagertu dira.

Desagertze horren tamaina ez da oso ezaguna, baina kezka handia sortu du

komunitate zientifikoan. Adibidez, marearteko zabalguneeetako alga batzuen galerak komunitate bentonikoen (lurrarekin zerikusia dutenen) elikadura katea pobretzea eragin lezakeela dirudi.

Aldaketa fenologikoak

Fenologia klima eta bizidunen zikloen arteko erlazioa aztertzen duen zientzia da. Adibide klasiko bat jartzeagatik, fenologian adituak enarak gurera noiz heldu ohi diren eta guretik noiz joan ohi diren adi daude, eta urtetik urtera aldaketarik badagoen aztertu ohi dute.

Bada, iparraldeko Atlantikoan fitoplanktonak izan ohi dituen urtaroko populazio eztandak (bloom izenekoak) aldatu egin direla diote jakitunek. Hala, udaberriko bloom-a, esaterako, ez da hain ugaria eta, gainera, urtetik urtera lehenago gertatzen ari da. Aldaketa horren erantzule bat baino gehiago dago (haizea, eguzki erradiazioa...), baina nabarmenena uraren tenperaturaren igoera da.

Hala ere, ikertzaileek bakarrik ez, arrantzaleek ere sumatu dituzte aldaketa fenologikoak, eta sarritan aipatzen dituzte komunikabideei egindako adierazpenetan; izan ere, hegaluzeen (ikusi 03 irudia) eta zimarroien migrazioak aldatzen ari dira, bai geografikoki, baita denboran ere, eta gaur egun 1-2 aste lehenago heltzen dira kalaetara.

Itsas organismoen prozesu biologikoen gainera afekzioak

Klima aldaketak sortutako ingurumen aldaketek eragina izan dezakete organismoen zenbait prozesu biologikotan. Gehienetan, afekzio horiek ez dira banakoentzat hilgarriak izaten, baina, epe luzera, ondorio garrantzitsuak izan ditzakete espezie askoren bideragarritasunean. Hurrengo lerroetan gertuko itsas guneeetan antzemandako adibide batzuk aipatuko ditugu.

Ingurumen aldaketen ondorioz, *Fucus serratus* alga arreak Asturiasko kostaldean duen ugaltze ahalmena murriztu egin da. Gainera,



Hegaluzea BIODIVERSITY HERITAGE LIBRARY



Itsas-triku morea. *Sphaerechinus granularis*. DIEGO DELSO. CC BY-SA 4.0

GAZITASUN ALDAKETAK EURI JASA HANDIEN MUTURREKO GERTAEREI LOTUTA DAUDE

IKERTZAILEEZ GAIN, ARRANTZALEEK ERE SUMATU DITUZTE ALDAKETA FENOLOGIKOAK

temperatura igotzeak ondorio negatiboak izan ditu haren hazkundera eta fisiologian.

Bestalde, Galizian egiaztatu da gazitasunaren bat-bateko gorabeherak aldaketak eragin dituztela marearteko txirla espezieen ugalketa organoetan. Gazitasun aldaketa horiek euri jasa handien muturreko gertaerei lotuta daude.

Bukatzeko, azidotasun ozeanikoaren areagotzeak eskeletoetan eragindako deskaltzifikazioak arazoak sortzen dizkie itsas trikuen espezie batzuetako larbei, gure harraldeetan nahiko ohikoa den itsas triku moreari (ikusi 04 irudia), kasu.

Zaurgarrienak

Egun dakigunaren arabera, eta zerrenda handitzen ari dela jakinik, esan daiteke klima aldaketak itsas ingurunean dituen eraginen aurrean habitat batzuk beste batzuk baino zaurgarriagoak direla. Arestian batzuk aipatu ditugu (alga handien basoak, adibidez), baina, tamalez, gehiago ere badaude:

Zostera noltii (ikusi 05 irudia) itsas fanerogamo bat da; hau da, itsas azpian loratzen den landare gramineo bat (algak ez dira landareak). Euskal Herrian, Lea, Urdaibai eta Bidasoko itsasadarretara mugatuta, haren belardiak zaurgarritzat jotzen dira arriskuan dauden EAEko katalogoan, eta Akitaniako flora baskularraren zerrenda gorrian dago.

Bada, itsasoaren azaleko tenperatura igotzeak bere habitata 900 km iparralderantz eraman lezake XXI. mendearen amaierarako. Horrek bere hegoaldeko populazioak –gure kostakoak– desagertzea ekarriko luke.

Maërl izeneko itsas hondoak libre (substratuari ez lotuta) bizi diren alga gorri karedunak metatzen diren hondoak dira. Uraren uhertasunaren arabera, *maërl* hondoak 20-120 m arteko sakoneran daude, eta batzuk 5.000 urte baino zaharragoak dira.

Karbonatozko estrukturak dituztela eta, alga hauek itsasoaren azidotzearen biktima zuzenak dira. Hori dela eta, XXI. mende

bukaerarako aurreikusten diren azidotasun tasak igoz

gero, habitat mota hori nabarmen gutxitzea aurreikusten da, baita leku batzuetan erabat desagertzea ere.

Aipatutakoaz gain, itsasertzeko habitat asko daude itsas mailaren igoerak kaltetu eta alda ditzakeenak, besteak beste, hondartzak, dunak, padurak, estuarioak eta partak.

Konponbiderik bai?

Aho zapore hobearekin amaitzeko, esango dugu artikulu honetan aipatu dugun problema zerrenda luzeari konponbideren bat jar dakiokela. Hori bai, egokitze neurrien garapenak lehentasuna izan behar du klima aldaketaren ebidentzia garrantzitsuaren (eta gero eta handiagoaren) aurrean. Egokitze neurriak lurraldearen kudeaketan eta babesean hartu behar dira, baita espezieen kudeaketan eta zuzeneko babesean ere. Ahaztu gabe, jakina, egoerari segimendua egitea, planifikazioa eta lege neurriak hartzea.

Zehazki, espezieak eta habitatak babesteko zerrendetan klima aldaketaren aurkako mehatxu eta ahultasun berriak jaso behar dira. Gainera, erabilerak eta zonazioa arautzen direnean, babestutako itsas eremuek espezie eta habitaten klima aldaketarekiko erresilientzia hobetu ohi da. Berdin arrantza jasangarritasun irizpideen arabera arautzerakoan.

Segimendu zientifikoa, ekosistema degradatuak berreskuratzea eta zaurgarritasunari eta arriskuei buruzko azterlanak ere ezinbesteko tresnak dira klima aldaketaren aurkako kudeaketa hobetzeko.

Motel samar gabiltza, baina ez da guztiz berandu. ■■■



Zostera noltii. DUARTEFRADE CC BY-SA 4.0

ZUMAIAR

bat gehiago



**BATU BALEIKEREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Do, re, mi...



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA
@IMANOLAZKUE

Gure attitta Jeronimo zenak, afaldu aurretik, terrazako eskaileretako koskan eserita musika banda entzuten zuen entseatzen, udaletxearen ondoko lokalean, eta eskuarekin markatzen zuen ondo ezagutzen zituen piezen erritmoa, gazte zeneko garaiak gogoan; nik, berriz, ez dakit zuri bat eta beltz bat bereizten, are gutxiago pentagramakoa irakurtzen, eta solfeora behin eraman ninduen amak, eskutik helduta ia arrastaka, Jeronimo Egañarengana; hurrengo egunean ez nintzen bueltatu. Baina zer gauza ederra musika banda jotzen entzutea, kalean aurrera.

Oker handirik gabe, esan genezake zumaiarrak daudenetik egon dela musika gurekin, baina gaurko kontakizuna XIX. mendearen erdialdean hasiko dugu; izan ere, hauxe zioen Pascual Madozek, Zumaiako banda zela eta: “También se ha formado en 1848 y 49 una música de aficionados que es, a no dudarlo, de las mejores de la provincia”¹; geroago, Udalak musika tresna berriak erosi zituen, 1866an, aurrekontuetan 2.000 erreale gordeta: “se consigne en dicho presupuesto la cantidad de dos mil reales



Zumaiako musika banda . ZUMAIAKO FOTOTEKA

para la adquisición de los instrumentos con el fin de establecer la música”². Aurretik, paper ofizialetan, badaude, ordea, musikaren beste erreferentzia ugari: 1780an, agintariekin gogorazpena bidali zuten herrietara, ezin zela egin dantzarik elizetan eta beste leku sakratuetan (beraz, egiten ziren seinale, eta dantza baldin bazegoen, musika ere izango

**1866KO
AURREKONTUETAN
2.000 ERREAL GORDE
ZITUZTEN MUSIKA
TRESNAK EROSTEKO**

zen); San Pedro egunean ezpata dantzariak izaten ziren; elizkizunetan eta jaiegunetan musika jotzen zuten, eta, adibidez, 1862an, Diputazioak euskal kanten piezak bidali zizkion Udalari, eta zinegotziek erabaki zuten elizako organistari ematea: “que se entreguen al organista Don Jose Maria Cincunegui las diez piezas de canciones vascongadas”³. Gainera, banda baino lehenagotik bazegoen danbolin jolea (“tamborilero”), eta pentsatzekoa da hark txistua ere joko zuela; Udalak urteko soldata ematen zion, eta jaietan jo beharra zeukan, “todas las fiestas de primera clase o de incienso, pues para ello abona este Ayuntamiento mil doscientos reales”⁴.



Zumaiaiko musika banda. ZUMAIAKO FOTOTEKA

Baina bandara bueltatuta, nola eratu zen? Hasteko, instrumentuak ikasteko mutilak izendatu zituzten (bai, neskari ez). Debako Javier Uraini eskatu zioten etortzeko laguntzera, eta hark zazpi

DEBAKO JAVIER URAINI LAGUNTZA ESKATU ZIOTEN, ETA HARK ZAZPI BIDAIA EGIN ZITUEN ZUMAIARA

bidaia egin zituen Zumaiara gazteekin aritzeko; zuzendari izatea ere eskaini zioten, baina ez zuen onartu. Banda hark, ordea, ez zuen askorik iraun, Gerra Karlista etorri zelako (1872-1876 artean) eta deseginda geratu zelako. Gero, berriz ere osatzeko ahalegina egin zuten: “restablecer la charanga que existía en esta villa antes de la guerra”⁵. Baina udal ordezkariak ez zeuden gustura, nonbait: “seguidamente se trató con detención del mal comportamiento de la música

y después de un detenido examen se acordó que desde luego debía recogerseles los instrumentos y reinstalarla poniendo para el efecto un reglamento especial”⁶. 1878an zenbait herritarrek udaletxeko bigarren solairua eskatu zuten, musika emanaldietarako: “Se dio lectura de una instancia de varios individuos de esta población sobre el pedido del Salón del piso segundo de la casa consistorial para la temporada veraniega con el fin de dar algunos conciertos para que se distraigan los forasteros



Txistulariak Oikian. ZUMAIAKO FOTOTEKA

y se acordó acceder a tan justa pretensión”⁷.

Paperetan begiratuta, Udalaren eta musikarien arteko harremanak ez ziren beti onak eta gozoak izan, oso ikuspegi desberdinak zeuzkatelako betebeharretan eta eskubideetan: ordainsaria zenbatekoa, noiz eta nola jo, zer pieza edo musika jo (soltean edo helduta dantzatzeko, kanpoko piezak edo euskaldunak...), musikariak libre zeudenean beren kasa kontzertuak emateko baimenak

(udatiarren festa pribatueta, adibidez), beste herri batzuetara joateko aukera... Horiek guztiak zirela eta, sesio ugari izan ziren, Udalak araudiak egiten zituen (aurrekoak betetzen ez ziren seinale); sarritan banda deseginda geratzen zen, baina atzera berehala eratzen zen. Gatazkaren erakusle, 1919an, hauxe prentsatik hartutako zita bat: “Entzun det emengo eresbatzakuak [bandakoak] ez daudela pozik Udala’k ordaintzen duan txindigaz [diruarekin] ta oporketa [greba]

egiteko asmoetan izan bear dutela. Mutillak, obe dezute elkar aitu edo konpondu orretara jo baño len. Eta hurrengo aldiz enparantzan jotzen dezutenean ia gure aberriko eresi [musika] ederrak dituzuten!”⁸. Ondo ere konpontzen ziren, ordea, batez ere azaroaren 22aren bueltan: Santa Zezilia zela eta, egun horretan eskupekoa ematen zien Udalak musikariei, bazkaritarako.

Zumaiako banda ona izango zen, nonbait; izan ere,

lehiaketetan parte hartzeko gonbidatzen zuten eta herri askotatik deitzen zioten: Eibartik, Azpeititik, Lekeitiotik... Joan ere, sarri joaten ziren herri horietara. Bandarekin edo musikarekin erlazonatutako bitxikeria asko ageri dira agerietan: 1900an, Euskal Jaiak prestatzeko, musikariak animatzeko, entseguetan ardo pixka bat jartzeko erabakia hartu zuen Udalak, eta egun hori pasatuta ere, 1901ean, eta udarari begira hobetzeko, astean arropa bat ardo ematea erabaki zuten;

1903an, Leandro Zabala musikariak Zumaiako Udalari pasodoblea eskaini zion ("Del paso doble que el músico Don Leandro Zabala dedica a este Ilustre Ayuntamiento; se recibió con agrado"⁹), eta gero irakasle eta bandaren zuzendari ere izan zen, 1913ra arte; 1920an, udal agintariak kezu ziren, bandaren emanaldietan musikari batzuek instrumentuak jotzen baino denbora gehiago pasatzen zutelako dantzari; 1931n, Estatutua onartzeko euskal udalen batzarra zela eta,

Udalak erabaki zuen udalbatza osorik joatea, banda eta guzti, eta Estatutua onartu zenean, 1933an, banda kalera atera zen. Beste ospakizun batzuetarako ere eskatzen zuten bandaren presentzia, baina Udalak ez zuen beti baimena ematen; adibidez, Errepublikaren Egunean edo Maiatzaren 1ean pieza batzuk jotzeko (UGTkoek eskatzen zuten kontzertuaren amaieran Internazionala jotzeko). Bestalde, aipatu beharra dago 1908tik aurrera Udalak pianoa ikasteko bi beka ematen zituela, eta ikasleren batek utzi orduko, beste gazte batek hartzen zuela lekua. Azkenik, hona ekarri beharko dugu XX. mendeko Zumaiako musikari ezagunenetako bat: Gillermo Aizpurua Amas Txoritxiki (Zumaia, 1891-1960)¹⁰; zenbait musika tresna jo zituen bandan (flautina, saxofoia, dunbala...), baina batez ere txistulari aritu zen, eta irakasle ere bai; pertsona apala, umila eta ona zen; gaur egun Zumaiako musika elkarteak haren izena dauka.

1936ko Gerrak nabarmen eragin zuen musika bandan: frankistak herrian sartu aurretik, bandako 14 lagunek alde egin zuten. Bazeukaten zeinek jo, ordea: falangistek musika tresnak uzteko eskatu zioten alkateari, aurretik beste talde batzuek (karlistek, seguru asko) erabili zituztelako; baina



Musika banda Erribera kalean aurrera, atzetik prozesioa duela. ZUMAIAKO FOTOTEKA



Zumaiaiko musika banda. Gure attitta erdiko lerroan, ezker-ezkerrean. Tronboia, itxuraz, osorik dauka. JOXE AZKUEK EMANDAKOA

alkateak ukatu egin zien: “se acordó negar la cesión de dichos instrumentos de música a la expresada entidad, y ordenar a los que actualmente las utilizan, que ningún instrumento de la Banda Municipal de esta Villa se saque de la Villa sin permiso del alcalde”¹¹.

Attitta Jeronimorekin hasi dut kontakizuna, eta haren izena ere aurkitu dut udal paperetan: “De la comunicación del Señor Director de la Banda de música por la que participa que el

chico Juan Arrospe, le ha estropeado el trombón al músico Jerónimo Azcue”¹². Gure amama Benturak ere ondo jotzen zuen ahoko soinua, abila zen “Andre Madalen” jotzen, baina haren izenik ez da ageri paperotan; emakumezkoak ez ziren sartu Zumaiaiko musika bandan 1980ra arte, eta 2013an, banda osatzen zuten 41 lagunetatik 18 emakumezkoak ziren; gaur egun (2021), 30-35 lagunetatik % 70 emakumezkoak dira. Aurreratu dugu zerbait, ezta? “Do, re , mi, hankaoker hori; fa, sol, la...”. ■

¹ MADÓZ, Pascual: **Diccionario Geográfico Estadístico Histórico de España y sus posesiones de ultramar**, 16.

liburukia, 678. or.

² ZUA, 73.01 (75), 1866-05-17an.

³ ZUA, 72.02, 1862-10-31n.

⁴ ZUA, 73.01 (261), 1870-08-14an.

⁵ ZUA, 73.02 (24), 1876-04-06an.

⁶ ZUA, 73.02 (61), 1877-09-14an.

⁷ ZUA, 73.02 (82), 1878-07-29an.

⁸ Euzkadi, 1919-02-20an.

⁹ ZUA, 2830 (402), 1903-03-26an.

¹⁰ Hari buruzko artikulua hemen: **Baleike aldizkaria**, 19. zenbakia, 1995eko abendua.

¹¹ ZUA, 2852 (199), 1936-12-19an.

¹² ZUA, 2835 (105V), 1911-09-14an.

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

K&B TABERNA

Pateita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

kalarri

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL
estudio decoración

Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

Hogei urte klarinetisten sarea ehuntzen

KLARINETE MARATOIA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Zumaiako Klarinete Maratoiak hogei urte beteko ditu aurten; abenduaren 8tik 12ra bitartean egingo da hogeigarren edizioa, eta, ohi bezala, klarinete eskolek, laborategiek, ikasleen emanaldiek eta kontzertu bereziek osatuko dute egitaraua.

Iaz, pandemia zela eta, jarduera batzuk online egin zituzten; emanaldi batzuk, berriz, ateak itxita egin behar izan zituzten osasun egoerak hala behartuta. Aurten, halako normaltasun batera itzuli nahian, jarduera guztiak aurrez aurrekoak izango dira; kontzertu guztiak publikoarekin izango direla ere nabarmendu dute antolatzaileek. Horrekin batera, iazko edizioan egin ezin izan ziren beste jarduera batzuk ere berreskuratu dituzte aurten: instrumentuen erakusketa edota lutheria, esaterako.

Ikastaroetarako –bakarkakoak zein taldekoak– eta laborategietarako izen ematea zabalik dago jada sasmusikaelkartea.com webgunean. Ikastaroak, ohi bezala, Espainiako Orkestrako kide Carlos Casado klarinetistak emango ditu. Maratoiaren sorreratik izan da musikari valentziarra Zumaiian, edizio bakar batean ere hutsik egin gabe. “Casadoren papera ezinbestekoa izan da Klarinete Maratoiaren historian. Maila honetako musikari bat Zumaiian ikastaroak ematen egotea gauza handia da: haurrekin,



Carlos Casado bakarkako klase batean. SAPERE AUDE SINFONIETTA

helduekin, zerbait dakitenekin, profesionalekin, amateurrekin... hori edozeinek ezin dezake egin, eta Casadok urtero egin izan du. Handia da hori!”, dio Marixi Sesmak, Klarinete Maratoiko antolatzaileak.

Kontzertuei ere garrantzi berezia emango diete aurten. “Oinarrietara itzuli nahi dugu eta azken urteotan amaierarako uzten genuen kontzertua lehen egunera mugituko dugu”. Haizezko ensemble baten kontzertua izango da abenduaren 8an, eta Straussen eta Dvoraken obrak joko ditu. Hurrengo egunetan agora bat, Legazpiko musikari gazteen emanaldia edo Klarinete Laukote Lehiaketa egingo dira. Azken egunean, 12an, bi emanaldi izango dira: bukaerako kontzertua eguerdian eta Urval Ensemble eta kolaboratzaileena arratsaldean.

Helburuak beteta

Musika Bandak ia klarinete joztailerik ez zuen unean sortu zuten Klarinete Maratoia, egorri buelta emateko eta klarinetearen inguruko ezagutza handitzeko. Urtetik urtera, edizioz edizio, handitzen joan da klarinetista kopurua bai Bandan, baita Musika Eskolan ere. Hasierako helburuak beteta, musika jardunaldi hauekin jarraitzeko erabakia hartu zuten antolatzaileek. Azken urte hauetan Sapere Aude Sinfonietta orkestraren aterpean antolatu da Maratoia.

Sesma bera harrিতa dago maratoiak hartutako bidearekin: “Hasi ginenean ez genuen pentsatzen hainbeste urte beteko zituenik; organikoki, beharren arabera, joan da hazten. Esan daiteke Klarinete Maratoian aritu diren klarinetisten sarea ere osatu dela”. ■

PUBLIZITATEA



SOLOZABAI
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINITZA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN Izustami, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Salxitxak, oillaskoak...
Garagardoak-dukera

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 575 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etcheberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com



Galdona
burdindegia

Denda:
Mendaro marinela, 1
943-14 33 46
Biltegia:
Jose Mari Korta industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
943-86 11 17



Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**

AGENDA

ERAKUSKETAK

URRIAK 21 - AZAROAK 21

HARRIAK.

Oxford Aretoan.

AZAROAK 26 - ABENDUAK 12

Malen Lopez.

Oxford Aretoan.

AZAROA

4 OSTEGUNA

Zine forum: *Quo Vadis, Aida?* (JBA).

Zuz.: Jasmila Zbanic.

Aita Marin, 19:00etan.

5 OSTIRALA

Antzerkia: *Agurra*, Vidania teatro.

Aita Marin, 20:00etan.

14 OSTIRALA

Kontzertua: Musika Banda.

Zumaianan, 18:00etan.

18 OSTEGUNA

Zine forum: *Summer of Soul* (JBA).

Zuz.: Questlove.

Aita Marin, 19:00etan.

19 OSTIRALA

Antzerkia: *Amua*, Axut!.

Aita Marin, 20:00etan.

21 IGANDEA

Meza: Beheko Plaza abesbatzak abestuta.

Parrokian, 11:00etan.

Antzerkia haurrentzat: *Hai, ametsetako arrantzalea*. Giramagic.
Aita Marin, 12:00etan.

25 OSTIRALA

Hitzaldia: *Cómo comunicar casos de violencia sexual contra mujeres**.
Emakumeon etxean, 18:30ean.*

ABENDUA

1 ASTEAZKENA

Zine forum: *Annette* (JBA).

Zuz.: Leos Carax.

Aita Marin, 19:00etan.

2 OSTEGUNA

Sari banaketa: Julene Azpeitia lehiaketa.

Emanaldia: Fito Rodriguezekin irakurketa musikatua
Aita Marin, 19:00etan.

BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA

AZAROAK 24, OSTEGUNA

Jardunaldia Baleikek antolatuta.
Oxford Aretoan, 19:00etan.

Hitzaldiak:

- Burujabetza teknologikoaren garrantzia hezkuntzan. Aitua: Josu Fdez. de Arroiabe (Zubiri-Manteo ikastetxeko IKT irakaslea).
- Adimen artifiziala eta euskararen erronkak. Aitua: Olatz Arregi (UPV/EHU Informatika fakultateko irakaslea eta IXA Taldeko kidea).
- Datuen pribatasuna eta segurtasuna Interneten. Aitua: Igor Unanue.
- Txikitik handira: Zumaia eta burujabetza teknologikoa. Aitua: Josu Waliño (PuntuEUS Fundazioko zuzendaria).



yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla *tailor*

• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

Marx eta mertzeria



Dendaostekoak

Egilea: Uxue Alberdi
Argitaratzailea: Susa
Argitaratze urtea: 2020
Orrialdeak: 216
Generoa: narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Uxue Alberdiren *Dendaostekoa* kronika literarioa dugu, denda baten kronika literarioa eta, bide batez, garai batena ere bai. Funtsezkoa ezkutuan egiten da, eta *Densaostekoa*, beraz, sinbolo bat dugu, historiaren denda ostea, memoriarena, hizkuntzarena eta beste hamaika gai ugariena.

Ornitorrinko batek ilustratzen du liburuaren azala; irudi ederra liburuaren izaera eta edukia adierazteko. Ornitorrinkoa desagertzeko zorian dagoen espeziea dugu, desagertzeko zorian dauden gure herrietako betiko dendak bezala. Ornitorrinkoa hibrido den espeziea dugu; Uxuek eskaintzen digun lana ere literatura da, baina sailkaezina dugu genero literarioen artean; hibrido literarioa, beraz.

Ez du liburuak pertsonaia jakinik, ez eta tramarik edo suspenserik ere. Bi narratzaile dira nagusi, bi narratzaile arrunt, bi emakume, jostuna bata eta brodatzailea bestea, Marijose eta Izaskun. Ez dituzte Balentziagaren traje dotoreak josten. Oso oihal xumeak

erabiliz karnabaletako trajeak atontzen dituzte. Liburuan ere aldian batek, aldian besteak, elkarriketan ariko balira bezala, oso modu xumean, denda ostetik azkeneko lau hamarkadetako Elgoibarreko herri xumearen garaiko taupadak, garaiko puntadak kontatzen dizkigute.

Denda ez da denda arrunta, ez da familia negozio arrunta. Herrira begira dagoen lekua da, askatasunaren gunea. “Marx eta mertzeria”. Bertan, dendan eta denda ostan, filosofiaz, literaturaz, musikaz, politikaz, zinemaz... hitz egingo dute, edo abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazioak prestatuko dituzte, mendi espedizioak ere antolatuko dira, baita karnabaletako festak ere. Memoria puskak domino fitxak bezala altxatuko dira orrietan

**OIHAL ZATI MERKEEkin
EGINDAKO SOINEKO
LITERARIO EDERRA
ESKANTZEN DIGU
UXUEK**

zehar: ikastolaren sorrera, manifestazioak, langile gatazkak, uholdeak, tiro hotsak eta horiekin batera gatazka politikoa, pozak, minak, txikiteo giroa, suizidioak, festak, ekonomia, familiak, amatasuna..., dena bi dendariren ikuspegitik kontatua.

Garai bateko emakumeen kronika ere bada, emakumeek zentimetro bat irabazteko egindako urrats txiki mordo baten kontakizuna. Denda baten kronika literarioa idatzi du Uxue Alberdik, eta, bide batez, garai batena ere bai. Memoriaren denda ostetik.

Askori eta askori ume eta gazte garaiko hamaika irudi ekarriko dizkigu akordura; izan ere, Elgoibarren gertatutakoa, konpasa zertxobait zabalduta, Gure Herriko edozein herritako historia ere izan daiteke.

Bi hitzetan esan liteke oihal zati merkeekin egindako soineko literario ederra eskaintzen digula Uxuek. Aukera paregabea Gure Herrian letra txikiz idatzitako historia ezagutu eta gogora ekarrarazteko. ■

Arkitektura



AMAIA ZUBIMENDI

Arkitektura iragana, oraina eta etorkizuna batzen dituen diziplinatzat har genezake. Izan ere, herri orok ditu garai ezberdin eta anitzetan eraikitako hainbat adibide: eliza, katedral, museo, eskola eta abar. Nork bere garaiari dagokion eraikitze modu edo teknika bati erantzuten diote, baita funtzionaltasun bati ere. .

Bestalde, eraikinak ez dira atenporalak, ez hilezkorrak. Batetik, ezinbestekoa da gutxieneko mantentzea eskaintzea, errehabilitazio edo errestituzio obrak sarritan ekidin ezin diren bezalaxe; era berean, gizarte baten momentuko beharrei erantzuna emateaz haratago, etorkizunak ekar ditzakeen aldaketei ere erreparatu behar die egungo arkitekto batek. Hots, egungo arkitektura garaikideak ez luke estatikoa izan behar; ez, behintzat, erabat. Arkitekturak moldakorra behar du izan. Esaterako, gaur etxebizitza izateko diseinaturiko eraikin bat bihar eskola nahiz zaharren egoitza bilakatzeko aukera ematen duen obra bat pentsatzean dago benetako erronka edo helburu nagusietako bat.

Materialen erabileraz ere hitz egin genezake, eraikitze prozesuan CO₂aren emisio kantitateaz eta abar. Halaber, iraunkortasunari dagokionez, bada parekorik ez duen praktika edo alternatiba bat: esango nuke argi dagoela eskura ditugun eraikin zahar edo abandonatuak berrerabiltzen hasteak ongizate komun bat dakarrela.

Zumaian bertan ere baditugu bizpahiru kasu. Garai batean fabrika izandakoak edota ekipamendu publiko papera bete zutenak. Azken horiei, leku berri bat eman zitzaion bere momentuan zerbitzu horien kalitatea hobetzeko helburuarekin. Halere, erabaki horien atzetik beste pauso batzuk ematea ez legoke sobran. Izan ere, espazio bat egunerokotasunean funtzionamenduan izatea mesedegarri da zentzu

BIZITZEKO MODU ALTERNATIBOAK, "EZ KONBENTZIONALAK", AZALERATU DIRA AZKEN URTEOTAN

guztietan. Are gehiago eraikin horiek espazio publiko egokiez inguraturik badaude. Horra hor anbulatorio zaharraren adibide argia. Ez naiz ari funtzio bakar batean fokuratzeaz, zerbait orokorragoaz baizik. Astelehenetik ostiralera zeregin batzuetarako erabil daitekeen espazio batek asteburuetan har baitezake bestelako eginkizun bat.

Bizitzeko modu alternatiboak, "ez konbentzionalak" ere azaleratu dira azken urteotan, praktikan jartzearaino. "Cooliving" delakoa argibide. Aurrez aipaturiko zenbait espazio bilaka litezke gutariko edonorentzat bizileku. Komunitate batean bizitzeko aukeran sinesten dute halako proiektuek. Pertsona, bikote edo familia bakoitzak baditu bere espazio intimo edo pribatuak, non partekatutako bestelako espazio batzuekin elikatzen diren.

Funtsean, gure herriaren garapenerako eraikin berrietan pentsatzea baztertu gabe, uste dut apustu polita litzatekeela jada eskuen artean duguna aztertu eta biziberritzen hastea. ■■■

Antonio Arias



JUAN LUIS ROMATET

Hantxe nengoen, bada, Granadan, Unibertsitateko plazako terraza batean eguneko hirugarren zerbeza (taparekin) hartzen, Capsula taldeak Bora Bora disko dendan eman behar zuen kontzertua hasteko zain. Eserlekuan botata nengoen, eguzkipean, bizitza nola pasatzen zen ikusten. Halako batean, ezaguna nuen pertsona bat ikusi nuen disko dendako erakusleiho aurrean. Antonio Arias zen, Lagartija Nick musika taldeko burua.

Nire gaztaroan ezagutu nuen taldea, 1990eko hamarkadaren hasieran. Bigarren diskoarekin, *Inercia* izenekoarekin, Txitxarron jo zuten; kontzertu hark arrastoa utzi zidan, eta gau hartan erositako kamiseta makina bat urtetan jantzi nuen, zuloz bete zen arte. Zerbeza mahai gainean utzi eta pentsatzen jarri nintzen: “Joango naiz edo ez kasu egitera?”. Ahozabala bezain lotsatia naiz, eta ez, ez nintzen atrebitu. Geroxeago, denda barruan aurkitu nuen Arias. Une batean, aurrean jarri zitzaidan eta hor bai, hor ukitu nion besoa: “Barkatu molestatzeari, baina zure lana jarraitu dut; orain ia 30 urte ikusi zintudan zuzenean”. Irribarre handi batekin galdetu zidan ea non izan zen kontzertu hura. “Txitxarron”, erantzun nion. “Honbre! Kontzertu hartako kartela etxean daukat gordeta!”. Sorbaldan pare bat kolpetxo eman zizkidan, eta hastear zen kontzertuari begira jarri ginen biok.

Amaitu zen kontzertua, eta dendako jabearekin berriketan hasi zen. “Lagun honek esan dit aspaldi ikusi gintuela Euskal Herrian. Gure ibilbidea han hasi zen, gaztetxeetan; hemen ez genuen ezer lortzen, baina han bai. Gure zaletuen erdia guardia zibilak ziren, eta beste erdia abertzaleak; guardia zibilak talde andaluziarra ginelako, eta abertzaleak gaztetxeetan jotzen genuelako. Behin, kontzertu baten aurretik, kosto pixka bat nahi nuela esan nion bati, eta hark lekuri onenera eramango ninduela esan zidan: Intxaurrendoko kuartelera. Han joan ginen, eta han erosi nuen. Intxaurrendoko kuartelagatik dioten guztia egia da. Ni naiz horren frogala!”.

Capsulako abeslaria, Martin, hurreratu zitzaigun: “Antonio, a zer poza zu ikustea. Askok maite zaitugu han, iparraldean”. Pedalei eta amplifikatzaileei buruz hizketan jarri ziren, eta, dendako jabeari eskerrak eman ondoren, joan egin nintzen. Metro batzuk haratago, atzera begiratu eta han ikusten dut Antonio Arias nigana datorrela. “Berandatu egin zait. Etxekoei esan diet gaur bazkaria egingo nuela. Taxi bat hartu beharko dut”. “Non bizi zara ba?”, galdetu nion nik. “Hirian, baina hemendik urruti. Zu non zaude?”, berak. “Hortxe goian, Albaicinen”, nik. Elkarri agur esan ondoren han geratu nintzen, mozolo bat bezala, hari begira. Zure heroiak ezagutzea arriskutsua zela zioen norbaitek, disgustu bat har zenezakeelako. Kasu honetan ez zen hala izan. ■■■

**ZURE HEROIAK
EZAGUTZEA
ARRISKUTSUA DELA
DIOTE; KASU HONETAN
EZ ZEN HALA IZAN**

ZUMAIA TXARTELA



ERABILI
ZUMAIA TXARTELA
ETA IRABAZI
EROSKETA BONOAK

5€

10€

20€

Azaroaren 4tik 28ra - Del 4 al 28 de noviembre



Zumaian bertan eguzki energia
sortzera goaz. **Izan aldaketaren
parte, zatoz Egutera.**

Egin aurrematrikula:
labur.eus/egutera


egutera

ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

EGOTETIK EGITERA





Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



Casa BASUSTA

LORATEGIA



*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com